



## **Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen espedientea ireki die higiezin sektoreko enpresa batzuei**

Lehiakortasunaren kontrako jokabide posiblea, higiezin bitartekaritza merkatuan prezioen gaineko ustezko akordioa izango litzateke

18 hilabeteko gehieneko epealdia ireki da orain, instrukziorako eta ebazpenerako

**BILBON, 2020ko azaroaren 5ean / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) zehapen espedientea ireki die higiezin sektoreko zenbait enpresari, euskal merkatuan lehiakortasunaren kontrako jardunbide posibleak direla eta.**

Informazio erreserbatu fasean jasotako informazioan oinarrituta, Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen espedientea ireki du, etxebizitzaren alokairuaren arloko prezioak edo beste merkataritza-baldintza batzuk finkatzeari buruzko balizko akordioarengatik edo hitzartu den edo nahita paraleloa den jardunbidearengatik. Eskuragarri dagoen informazioa ikusita, Lehiaren Euskal Agintaritzak uste du Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua urratu izanaren arrazoizko zantzuak daudela, modu berezian kaltebera den kolektibo bati eragiten dion merkatu batean, hau da, etxebizitza bat behar duten pertsonen merkatuan.

Espedientea irekitzeak ez du ikerketaren azken emaitza baldintzatzen. Adierazten diren irekiera eta kalifikazioa eragiten duten arrazoizko susmoak behin behinekoak dira.

Orain, 18 hilabeteko gehieneko epea irekiko da Ikerketa Zuzendaritzak instrukzioa egin eta Lehiaren Euskal Kontseiluak espedientea ebatzi dezan. Azken horrek lehiaren aurkako jokabidea artxibatzea, dagoela egiaztatzea eta zehapena ezartzea ebatz dezake, eta baita espedienteari itun bitartez amaiera ematea ere. Sistema hori dagoeneko interesgarria izan da enpresaren batentzat. Horretarako, kontua amaitu aurretik, enpresek zenbait konpromiso hartu behar dituzte beren gain, ez da zehapenik ezarriko eta espedientea jasaten dutenek ez dute beraien erantzukizuna aitortuko.

### **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoari dagokienez.

Kartelen ikerketa da Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketaren lehentasunetako bat, kontsumitzaileentzat eta merkatuen funtzionamendu egokian dituen ondorioen larritasun berezia dela eta. Horretarako, beste batzuen artean "Barkaberatasun Programa" dago. Programa horren bitartez, kartel bateko kide diren enpresak zigorra ordaintzetik salbuetsita geratzen dira edo



zigorraren kopurua txikitzeko aukera dute, dagoeneko hasita dagoen ikerketari dagokionez balio erantsi esanguratsua duen informazioa ematen badute.